

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Gobernua LGTBI+ Pertsonen Foru Legea garatzeko Ekintza Plana lantzen hasi da

LGTBI+ pertsonen Nafarroan zer-nolako errealitateak bizi dituzten jakiteko galdetegia jarri du abian

Osteguna, 2018.eko uztailak 5

Nafarroako Gobernuak, Berdintasunerako Nafarroako Institutuaren bitartez, LGTBI+ pertsonen berdintasun sozialaren egoerari buruzko Diagnostikoa egiteko lanak abian jarri ditu, eta, ondoren, LGTBI+ pertsonen berdintasun sozialerako ekainaren 19ko 8/2017 Foru Legea garatzeko Ekintza Plana jorratuko da.

Diagnostikoaren helburua da **Nafarroan LGTBI+ pertsonen**, eremu sozial ezberdinetan nahiz administrazioarekiko erlazioetan, **bizi dituzten errealitateak** erakustea, LGTBI+ Legea bera ezartzea programatu eta modu koherentean egokitze aldera.

Modu horretan, hiru zatiko [galdetegia](#) diseinatu da, eta Gobernu Irekiaren Atarian eskura daiteke. Lehen zatia LGTBI+ pertsonen Nafarroan izan ditzaketen premiei buruzkoa da, bigarrena 8/2017 Foru Legean jasotako neurriak jartzerakoan ezarri beharreko lehentasunen ingurukoa, eta, azkenik, hirugarrena, datu soziodemografikoei buruzkoa; azken horretan kontuan hartzen dira hainbat aldagai sozial, analisi orokorra egitearren.

Inprimaki hori prestatzeaz gain, lan-saioa egin da taldeekin eta elkarteekin, elkarren artean lantzeko inprimakian jasotzen diren gaiak.

Diagnostiko sozialarekin batera, banako eta talde txikietako elkarrizketak egin zaizkie departamentu ezberdinetako pertsona giltzarriei, departamentu bakoitzaren jarduera-eremuaren errealitatea detektatzeko xedearekin.

Inprimakia

[Inprimakia](#) eskura izango da uztailaren 27ra bitarte. Ondoren, lortutako emaitzak eta iturri kuantitatiboetako datuak aztertuko dira; modu horretan, Ekintza Planaren zirriborroari hasiera emango zaio, eta azken hori ere parte hartzeko prozesuan landuko da udaren amaiera aldera.